



etorkizuna
futúro



2018ko plangintza

erabakian gara

Bidean gaude.

Hitz egiten, solasten, elekatzen, elikatzen, eztabaidatzen. Ideiak adosten, aldeak gaingitzen, erantzunak bozkatzen, bozkak zenbatzen. Hitza ematen. Eta hitza hartzen.

Bidean gaude.

Alfabeto berri bat idazten. Hitzak biltzen, egunak eta orduak adosten, galdera ikurrak marrazten, erantzunak zehazten, bizikidetza harilkatzen, bazterrak plazara ekartzen, komuna erdigunean jartzen.

Bidean gaude.

Alfabeto berri bat ituntzen. Borondatea hitz bihurtuko duena, hitza iritzi, iritzia bozka eta bozka erabaki. Eskubidea geurea dela ikasten. Erabakitzekeo eskubidea izateko eskubidea dugula barneratzen. Eta zabaltzen.

Bidean gaude.

Erabakitzeak egiten gaituelako nor, Eskubideak ez baitira aldarri bat, ez araudi bat. Eskubideak herritarrak gara. Herritarrak, eskubideak itun batean geure eskuz idazten.

Bidean gaude.

Borondateen eta desioen kartografia bat marrazten. Soka besteari luzatzen, korapiloak askatzen, etenak lotzen, soka eskutan hartuz ertzak borobiltzen, herri bat biltzen.

Erditzen ari gara.

Herriaz ari gara erditzen. Herriaz erditzen garelako da gurea erabakia. Herri izateko ez da ez baimenik ez arrazoirik behar. Baina norberaren arazoiak eta borondateak herri izana sendotzen dute. Herriaz erditzen ari gara, gizarte izateko.

Erditzen ari gara.

Aro berri batera ari gara erditzen. Aro berri baterako ordua doitzen ari gara, erlojuari korda ematen. Aro berri baterako herri itun bat idazten ari gara eskuz esku. Herri bat gara etorkizunera jaiotzen.

Erabakian gara. Bidean gaude.

*Lorea Agirre
2017/06/10*

testuingurua

Kataluniaren kasuarekin inoiz baino argiago gelditzen ari da erabakiaren bidea esploratu gabeko bide bat dela, eta herri bakoitzak bere bide propioa duela. Herri bakoitzak bere mendi gailurra igo behar du, eta mendiari izen bera jarri arren ezberdina izango da, eta zapaldu gabekoa. Ez dago bide markaturik, esplorazio hutsa da, bidea uneko baldintza eta zailtasunen arabera marraztu behar da. Ibilbidea, beraz, etengabe aztertzen eta birpentsatzen aritu behar da. Horretan ari da Gure Esku Dago. Erabakitzeko eskubidea posible egingo duen ziklo berriari ateak ireki nahi dizkio 2018ko plangintza honekin, epe ertain-laburrean erabakitzeko eskubidea gauzatzeko aukera berriak sortuko direla eta herritarren ekarpena ezinbestekoa izango dela sinetsita.

Lau urteotan milaka euskal herritarrok erabakitzeko borondatea, konpromisoa eta determinazioa adierazi dugu. Jabetu gara erabakitzeko aukerak sortu eta aldarrikatzeaz gain, erabakitzeko prest egon behar garela, gai izan behar garela, bide hori babestu eta sustatuko duen gizarte zibil sendo eta zabala behar duela herri honek. Lortu dugu herri galdeketak 180 herrietan egitea, 780.000 biztanle bizi diren eremuan, borondateak ehunduz, adostasunetan sakonduz eta herritarrek ahalduz. Eredu hori Euskal Herri osora zabaldu nahi dugu, orain arte lortu den adostasun sozial handian sakonduz. Guztiok bat eginda soilik lortuko baitugu aurrerapauso sendoak eta eraginkorak ematea, eta urrats horiei esker, gure herriaren etorkizuna erabakitzea.

Testuinguru interesgarri bezain aldakorra bizi dugu. Erabakitzeko eskubidea eztabaidaren muinean kokatu da Espainiako estatuan. Katalunian errepublika deklaratu dute, 155 artikuluari aurre egiten ari dira eta, aldi berean, abenduaren 21eko hauteskundeetara begira daude alderdi soberanistak. Euskal Herriaren kasuan, EAEn autogobernu ponentzia lantzen ari dira alderdiak eta erabakitzeko eskubidea eztabaidaren erdigunean kokatuko da. Nafarroan, gobernuak Foruaren Hobekuntzaren inguruko txosten bat landu du eta Parlamentuak kontsulten legearen inguruko eztabaida zabalduko du datozen hilabeteotan. Beraz, Nafarroaren estatus politikoaren inguruko eztabaida piztuko da eta GEDren dinamika indartzeko abagune interesgarria izango da. Ipar Euskal Herrian, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa batu dituen Euskal Elkargoa eratu dute, batetik, eta bakeranzko bidean urrats erabakigarriak egin dituzte, gizarte zibilaren eskutik, herritarren borondate eta konpromisoari esker.

Izan ere, erabakitzeko eta adosteko jarrera eta kultura ahalduzailerik gabe ez dago herri gisa erabakitzetik. Sinesmen horri erantzunez, GEDek 2018ko plangintzaren erdigunean kokatzen du Herritarren Ituna; erabakitzeko eskubidea gauzatzeko norabidean, urrats sendoak egin ahal izateko, erabakitzeko beharra sentitu eta arrazoitzeko, elkarlanerako eta indarrak biltzeko. Prest gaude erabakitzeko. Etorkizunari begira jarriak gara dagoeneko. Erabakiaren bidea esploratzen segiko dugu, testuinguruaren eta tokian tokiko erritmoen arabera, tontorrera heldu arte. Eta etorkizuna ZU ere bazara. Denok gara. Har dezagun bidea!

helburuak

1. Euskal herritarrok gure etorkizun politikoa libreki erabakitzeko tresnak eskuratzea, eragile eta erakundeekin elkarlanean eta tokian tokiko borondateari helduta. Eta helburu horretarako, ezinbestekoa da:
 - 1.1. Herritarren Ituna landu eta eragile eta erakundeekin partekatzea, erabakitzeko eskubidea aitortu dadin zabalduko dugun ziklo berrian.
 - 1.2. Euskal Herriko erabakitzeko eskubidearen aldeko eragileen artean herri gisa erabakitzeko behar diren konplizitateak eta adostasunak josi eta Herritarren Itunetik Herri Itunera jauzi egitea.
2. Erabakira heltzeko behar den eztabaida publikoa zabaltea.
3. Gizartean dauden mugak eta lubakiak erauztea: bizikidetzeta eta auzolana sendotzea eta elkarlana ilusioz eta baikortasunez hedatzea.
4. Herritarrek ahalduntzea eta erabaki beharraz jabetzea, tresna eraginkorren bidez erabakitzeko eskubidean sakonduz printzipio demokratiko gisa.
5. Herritarren borondatea bideratu eta aintzat hartu beharra aldarrikatzea, mugarik gabe.

herri galdeketak

'Bihar Euskal Herrian'

Erabakitzen erabakiz ikasten da eta, hortaz, erabakitzeko ariketak egitea da erabakiaren kultura demokratikoa eta jarrerak barneratzeko modurik eraginkorrena. 2016an ekin zion Ian ildo horri GEDEk eta datorren urtean ere herri galdeketek beren bidea egingo dute, herritar ahaldunduen eskutik, tokian tokiko testuingurua eta erritmoak errespetatuz. Horregatik, EAEen herri-galdeketen Ian ildoari 2018an emango diogu amaiera. Nafarroan eta Iparraldean, aldiz, 2019an.

- **Herri-galdeketen Ian ildoaren helburu zehatzak:**

1. Euskal Herriko biztanleriaren eremu ahalik eta zabalenera heltzea erabakitzeko eskubidearen eztabaida eta praktika.
2. Herritarron elkargune izatea.
3. Kultura demokratikoan sakontzea.
4. Ahalik eta jende gehienaren parte-hartzea sustatzea. Gaur arte botoa eman dutenen zifra –177.000– areagotuz.
5. Hiriburuetan erabakia gauza dadin baldintzak sortzeko ahalegin berezia egitea.
6. Herritarrak prestatzea, gaitasunak geureganatzea, Euskal Herrian erabakitzeko.

- **Hurrengo herri-galdeketak:**

1. 2018ko udaberria (Arabak: Aiaraldea, Zuia; Bizkaian: Lezama, Zamudio, Cúeñas, Gordexola, Muskiz, Igorre eta Portugalete; Nafarroan: Lizarraldea eta Malerreka).
2. 2018ko udazkena: Irun, Donostia, ...

herritarron ituna

'2019 arrazoi erabakitzeko'

2017ko Ekainaren 10ean Herritarron Itunaren egitasmoa aurkeztu genuen Bilbon egindako mobilizazioan; solasaldirako, konplizitateak josteko eta adostasunak ehuntzeko esparru berria izango dena. Bi konpromiso nagusietatik abiatu ginen:

1. Herritarron erabakitzeko eskubidea gauzatzeko lanean jarraitzea eta gure ekarpenak egitea.
2. Gure etorkizun politikoaren eztabaidan gizartearen parte hartzea bideratzeko tresna eraginkorrak antolatzea.
3. Bi helburu horiek betetzeko egitasmoa da Herritarron Ituna; erabakitzeko eskubidea edukiz betetzeko dinamika herritar eta parte-hartzailea. Zergatik eta zertarako erabaki nahi dugun jasoko dugu itunean, '2019 arrazoi erabakitzeko' leloaren bueltan. Ekainera bitartean, eskuz esku eta herriz herri egingo dugu arrazoi bilketa, metodologia parte hartzaileen eta herri ekimenean bitartez. Eta, ekainetik aurrera, Euskal Herriko eragileek bat egingo duten Erabakitzeko Eskubidearen aldeko Herri Ituna sustatuko du GEdek.

itunaren lan ildoaren helburuak

1. Erabakitzeko beharra sentitzea, barneratzea eta gizarteratzea.
2. Erabakitzeko arrazoiak elkarrekin, modu parte hartzailean eta arloz arlo biltzea.
3. Zergatik eta zertarako erabaki nahi dugun plazaratu eta herri honetan fase berri bat zabaltzea.

nola egingo dugu?

- **Fase ahduntzailea**

Hiriburuetako mahai inguruak: Urtarrilean mahai inguruak antolatuko ditugu hiriburuetan. Arlo anitzetako eragileak batuko ditugu Euskal Herriko hiriburuetan, eta 'Zergatik erabaki?' galderari erantzungo diote hizlariak. Hiriburu bakoitzean gai zabal bat landuko da: ongizatea, kultura, herritartasuna, gure lurra, euskal komunitatea munduan... Mahai inguru horietan sortutako edukien zabalpena egingo da eta herrietan egingo diren dinamiketarako abiapuntu izango dira.

Eskualde/herrietako saio parte-hartzaileak: Hiriburuetako mintegietatik abiatuta, saio parte-hartzaileak antolatuko dira herriz herri edo eskualdez eskualde. Saio

dinamiko horietan herritarrek, metodologia jakin baten bidez, arloz arlo zergatik erabaki nahi duten hausnartuko dute eta arrazoi bilketa egingo da.

Ekimenak: Herritarren aktibazioa eta aro berriaren abiapuntua sinbolizatuz, 'Klik'-aren ikurra izango da kanpainaren ekimen nagusien ardatza. Kaleko ekintzen helburu nagusiak izango dira 1) Herritarron Ituna sozializatzea 2) Eragile eta herritarren sarea sendotzea 3) Herritarren aktibazioa eta parte-hartzea sustatzea. Maiatzean KLIK Eguna ospatuko da herri guztietan eta egun hori, zein urtean zehar egingo diren beste hainbat ekintza baliatuko ditugu Herritarron Ituna sozializatzeko eta ekainaren 10eko mobilizazioaren kanpaina egiteko. Izan ere, 2018ko ekainaren 10a izango da erabakitzeko arrazoiak erakusteko eta indartzeko eguna.

- **ZIKLO BERRIARI EKITEKO FASEA**

Herri Ituna: Herritarron Itunean jasotako edukiak plazaratu eta Euskal Herrian ziklo berria zabalduko duen Herri Itun bat sustatuko du Gure Esku Dagok. Euskal Herriko eragileen artean herri gisa erabakitzeko behar diren konplizitateak eta adostasunak jostea helburu duen Erabakitzeko Eskubidearen Aldeko Herri Ituna.

finantzazioa

bazkide kanpaina

- 'EtorkiZUna ZU zara'

Dinamika herritar gisa dagokigun barne funtzionamendu demokratikoan sakontzeko helburuarekin sortu zen bazkidearen figura, herritarron zuzeneko parte-hartzea ahalbidetzeko. Urte erabakigarria izango da datorrena eta bazkideen figura indartu nahi du Gure Esku Dagok; erabakiaren aroa bururaino eramateko herritar guztiok baikara beharrezkoak.

tripontzia urteberriko saria

- 'Bada zerbait irabazteko garaia!'

Bestalde, eta erabakiaren aroa sostengatzea herritarroi dagokigunez, Tripontzia Urteberriko Saria atera du Gure Esku Dagok, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluarekin elkarlanean. Erabaki ahal izateko herritarrok gara bermea. Eta hori horrela izan dadin Gure Esku Dago herri dinamika sendoa behar beharrezkoa dugu, baita ekonomikoki ere.

etorkizuna
futúro

